Larizerdikoa (-a) etxebizitza

Aldaerak: Larizbekoa / Larizetxebarria
Ahozkoa: Láix Békue / Békue / Serrie

43° 11'23" *2° 34'16"* *Berriz Iruditan / J.A. Ramos*

Lariz jauregia (**Ikus Lariz**) eta *Larizkoerrota* (**Ikus Larizkoerrota**) artean gelditzen den baserria da honako hau. XIX. mendeko baserri honen gaineko lehen aipamenak XX. mende hasieran aurkitzen ditugu: *Defrente al palacio de Lariz* (1906, DJE, 7/ 248. or.) eta *Lais echevarria* (1910, BUA, RU). Eraikina erre ostean berreraikia izan zen, eta ordutik eduki duen funtzioagatik ezaguna izan da berriztarren artean: *Serrie*. Inguruan duen *Larizgoitia* (**Ikus Larizgoitia**) baserritik bereizteko, behealdean aurkitzen den honako hau *Láix Békue* edo *Békue* moduan ezagutu izan da.

XX. mende erdialdeko etxea, 1941ean erretakoaren ordez jaso zutena. Sasoiko beste asko moduan, etxebizitzatan banatuta dago, hiru pisutan, behekoa garaje eta antzekoetarako utzita, eta sarrerako atea aldamen batean dauka, eskailerak igota. Etxebizitza bien baoak zabaltzeko irizpideak berdinak diren arren, lehenengoan, alde batean, leihoak baino ez daude eta fatxada estuenean, begiratokia da nagusi. Bigarrenean, ostera, bi fatxaden erdikoan balkoiak ireki zituzten. Isuri biko teilatudun etxea da eta hormak luzituta dauzka.

toponimia

Bizkaian ohikoa da etxe izenak oso luzeak izatea, luzeenak Euskal Herrian, lehenengo osagaia auzo izena izaten delako. Sarritan auzo izena izatez bertan egon zen lehenengo izena baino ez da. Etxe bakarra egon zen eta bigarren bat eraikitzean zerbait bereizgarri gehitu zioten berriari eta gehienetan zaharrari. Denboraren poderioz auzoa sortu zen eta etxe guztiek hasiera bera hartu zuten, auzoaren izena. Ahoz, gehienetan bigarren zatia besterik ez da erabiltzen. Kasu honetan Lariz *auzoaren erdian zegoen etxea da.*